

## Bertsolaritzaren harrobia lantzen

Bertso Paper Lehiaketako sari banaketa egin zen asteazkenean

**M**anuel Lekuona Kultur etxeko aretoa gaztez bete zen asteazkenean. Landaberi eta Sasoea-Zumaburu ikastetxeetako 5. eta 6. mailakoa eta DBHko ikasleek bertsoaz gozatzeko aukera aparta izan zuten.

Izan ere, Ttakun kultur elkarteak, Lasarte-Oriako bertso eskola eta Udalaren laguntzaz aurten ere XVIII. Bertso paper lehiaketa antolatua izan zen eta asteazkenean izan zen sari banaketa.

Baina hau ez zen sari banaketa soilak izan. Beñat Gaztelumendi eta Unai Muñoa bertsolariak bertan egon ziren eta haurrak lanean jarri zituzten.

Lehenik, librea agurra egin zieten gaztetxoei eta besteak beste, haiek klasea gaitzogatik pozik zeudela aipatu zuten haien bertsoetan.

Jarraian, abestutako bertsoen errimak amaitu behar izan zituzten gaztetxoek eta geroago, bertsoak akatsak zituen edo ez erabaki txalo edo txistu eginaz.

Gainera, taulatik jaitsi eta haurren artean ibili ziren segidillak egiten. Muñoak aban-

taila izan zuen bertan zeuden haurretako batzuk haren ikasle baitira.

### Sarituak

Bertsoak amaiturik, ekitaldiko momentu garrantzitsuena iritsi zen, saribanaketa.

Landaberi ikastola Lehen Hezkuntzako lehen saria Haizea Alvarezek eskuratu zuen eta aipamen berezia egin zioten Maialen Uriberen lanari.

Sasoea-Zumaburu ikastetxeako lehen hezkuntzako ikasleen artean lehengo saria Amaia Arruabarrenak eraman zuen.

Bestalde DBHko ikasleen artean, Landaberi ikastolako Lierni Rekondo izan zen irabazlea eta Iñigo Otaegik aipamen bere izan zuen.

Sarituak Lasarte-Oriako Euskara zerbitzuko arduraduna Iñaki Arruti eta bi bertsolarien eskutik jaso zituzten haien opariak.

Eskuratutako sarien artean, Lasarte-Oriako antolatuko den Gipuzkoako txapelketako saiorko bi sarrera daude.


Gainera, ekitaldia amaitu baino lehen, sarituak batzuk haien bertsoa abestera ausartu ziren lagun edo Unai Muñoaren laguntzaz. •



Bertso Paper Lehiaketako sarituak Unai Muñoa, Beñat Gaztelumendi eta Ttakun eta Euskara Zerbitzuko arduradunak.



Muñoa eta Gaztelumendi gaztetxoaren artera jaitsi ziren eta bat baino gehiago lotsatu zen haren izena entzuterakoan.



Shandra Perez,  
Jalgiko margo  
erakusketako  
egilearekin  
solasean /4

### KIROLA /6

Dominak lortzen  
eta markak  
hausten ari dira  
Buruntzaldea  
Igeriketa taldeko  
kirolari gazteak



Lasarte-Oriako  
III. BTT travesia  
antolatu du  
Saiatuz elkarteak  
apirilaren 10ean /5



# BATU GAITEZEN

## LASARTE-ORIAK AURRERA EGITEKO

Estitxu Alkorta



www.estitxualkorta.com

**Neure kabuz**



**Iritsi da Metroa!  
Postontzietaraino!!**

Aurreko astean, bai. Oriaraino bertan-bertaraino, ez dakit, baina herriko postontzi guztieta iritsi zen, bai. Metro-Metroa, e! Ez 100 zentimetro. Ez, ez, ez. Lur azpiko tren. Ete guztieta-raino. Hori, ezta Olentzerok ere ez du egiten. Nire etxera, behintzat, aspaldian ez da iristen Olentzero. Ahaztu egin da nitaz. Edo halamoduzkotzat jotzen du nire txintotasuna. Eskerrak instituzioak ez direla Olentzero eta kontutan hartzen nauten. Poztekoa da, aizu!

Bada, hori, paper satanuko triptiko batean iritsi zen Metroa, kolore eta diseinu polit askoa. Jaurlaritza eta Udaleko bereizgarri nabarmenak agerian. Eta akabo hor nire poza. Ezen, horretarako badago dirurik. Triptiko horren kostuaren erdia ere jasotzen ez duten herriko taldeei diru-laguntzat igotzeko ez dago, baina horretarako badago. Hauteskundeei begira, ustezko informazio itxuran publikitate egiteko badago.

Publizitate ez oso inteligente, nire ustez. Izan ere, hain nabarmena da diru publikoaren erabilera partidista, ze, haien kalterako gertatuko da. Kontrako erreakzioa sortzen du eta.

Badakit ez direla lehenak horrela jokaten, baina... Dena dela, okerragoa izan da Oretetan. Hemen, behintzat, segidan baina egite ezberdinetan banatu dute publikitate instituzionala eta alderdiarena. Oretetan egun berean biak. Merkeago horrela, noski. Erdibana ordainduta, ordea?

A! Eta ez dut esaten tren Oriaraino eramatea aztertu beharko ez denik, e!

**Pablo Barrio**

**Zorion-agurrak**



**Tamara**

Zorionak! Ondo pasa asteburuan baina zeozer utzi besteentzako...



**Irati**

Zorionak maitia!! Azkenean iritsi da ospatzeko eguna!!! 3 muxu, aita-txo eta amatxo.



**Juncal**

Asko maite zaitugula, bereziki lehengusu Nacho, Paula eta Lorena. Zorionak printzesa!



**Oier eta Yosune**

Zorionak bikote! Txokomarrubizko muxu goxo zuen urtebetetzean familiaren partetik.



**Nora**

Zorionak bihurri zure urtebetetzean. Egun polita pasa eta 9 muxu handi guztien partetik



**Malen**

Zorionak polita! Muxu handi bat moxoxinanzako familiaren partetik.



**Nahia**

Txokolatzeko 5 muxu gure printzesarentzat aitatxo, amatxo eta Maialenen partetik.



**Nahia Ane**

Zorionak eta muxu asko zure gurasoen partetik.

**Hiribusaren ordutegia Lanegunetan**

www.tssst.info 943.361.741				Lasarte-Oria			
Antrixu	Zabaleta	Atsotak	Cocheras	Antrixu	Zabaleta	Atsotak	Cocheras
7:45	7:55	8:00	8:05	14:15	14:25	14:30	14:35
8:15	8:25	8:30	8:35	14:45	14:55	15:00	15:05
8:45	8:55	9:00	9:05	15:15	15:25	15:30	15:35
9:15	9:25	9:30	9:35				
9:45	9:55	10:00	10:05	16:15	16:25	16:30	16:35
10:15	10:25	10:30	10:35	16:45	16:55	17:00	17:05
10:45	10:55	11:00	11:05	17:15	17:25	17:30	17:35
11:15	11:25	11:30	11:35	17:45	17:55	18:00	18:05
				18:15	18:25	18:30	18:35
12:15	12:25	12:30	12:35	18:45	18:55	19:00	19:05
12:45	12:55	13:00	13:05	19:15	19:25	19:30	19:35
13:15	13:25	13:30	13:35	19:45	19:55	20:00	20:05
13:45	13:55	14:00	14:05	20:15	20:25	20:30	20:35

**Ospitaleetara doan autobusaren ordutegia**

Bidaiaren iraupena: 15 minutu

Lanegunetan	<b>Lasarte-Oriatik irteera</b> (Tajamar errotondatik)	7:30, 8:30, 9:30, 10:30, 11:45, 12:45, 13:45, 14:45, 15:45, 16:45, 18:00, 19:00, 20:00.

**Azoka txikia**

**Eskaintza inmobiliarioak**

• Garaje plaza handia alokatzen dut Atsotakarren. 60 euro/hileko. Tel.: 943 376 115 (Jose Manuel).

• 116m2-ko aparteko pisua salgai, kultur etxearen parean. Guztiz berrituta: 3 gela, 2 komun, jantzi-gela, egongela eta sukalde errera. Gela guztiak kalera ematen dute (Iñigo de Loyola eta Geltoki). Sartzeko prest: 639 738 413.

• Lokala salgai Lasarte-Orian, Green plazan. 48 m2 ditu eta aukera du etxebizitza egiteko legedi barruan. Aire egokitua eta komuna ditu. Komertzio bezala ere aukera onak ditu. 110.000

**Oharrak jartzeko:**

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com  
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

euro.Tel.: 605 770 786.

• Mobil home bat saltzen da, Olliten. Interesatuak telefono zenbaki honetara deitu: 626057485, Jone.

**Lan-eskaintzak**

• 4.D.B.H-ko ikasle bati klaseak emateko irakaslea behar da. Interea daukanak 636218677 telefono zenbakira deitu dezala.

**Lan-eskariak**

• Emakume euskalduna eskaintzen da gaixoak edo adinako pertsonak zaintzeko, etxean edo ospitalean. Ordutegi malgua, bai egunez edo gauzez. Prezio ekonomikoa. Tel.: 687 348 223.

**Guardiak**

**EGUNEKOAK: 09:00-22:00**

**Ostirala, 1**

Urbistondo, San Frantzisko 1  
Tel.: 943 366567

**Larunbata, 2**

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

**Igandea, 3**

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

**Astelehena, 4**

Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652

**Asteartea, 5**

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

**Asteazkena, 6**

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774

**Osteguna, 7**

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

**GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero**

Chuela, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

**Jaiotzak**

• Nora Amantegui  
Fernandez, martxoaren 26an  
• Kerman Etxeberria Larrañaga, martxoaren 22an

**Heriotzak**

• Jesus Mari Garmendia  
Arregui, martxoaren 24ean 67 urte zituela

**Telefonoak**

**Udala**

**Osasuna / Larrialdia**

Osasun Zentroa ... 943 007960  
DYA ... 943 464622  
Gurutze Gorria ... 943 363953  
Udaltzainak ... 943 362442  
Ertzaintza ... 943 288888  
SOS Deiak ... 112

Erregistroa ..... 943 376055  
Euskarako Zerbitzua 943 376184  
Kiroldegia ..... 943 376182  
Kulturetxea ..... 943 376181  
Zerbitzu Sozialak ... 943 376179  
KIUB ..... 943 361605  
Udal euskaltegia ... 943 361621  
Muntteri AEK  
euskaltegia ..... 943 372863

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**



**Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea**



**GFAko Kultura eta  
Euskara Departamendua**



**EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA**

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com. Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.





Buruntzaldeko udalerrien eta Euskadiko Kutxako ordezkaria, erdian, hitzarmena sinatzen.

## Euskadiko Kutxa euskara sustatzeko prest

Buruntzaldeko herriein hitzarmenak sinatu ditu

**B**uruntzaldeko Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria eta Urnietako Udalek Euskadiko Kutxarein euskararen erabilera sustatzeko hitzarmena sinatu zuten asteartean.

Hitzarmen sinaketan Euskadiko Kutxako Buruntzaldeko zuzendaria den Iñaki Gaztelumendi, Petri Romero Andoaingo Udaleko euskara batzordeko lehendakaria, Bixente Arrizabalaga Astigarragako alkatea, Hernaniko euskara delegatua Idurre Lucas, Lasarte-Oriako euskara batzordeko lehendakaria Iñaki Mugika eta Mikel Izagirre Urnietako alkatea egon ziren.

Sinaketa ekitaldia hasi baino lehen, Euskadiko Kutxako ordezkariak ongi etorria egin zuten udaletako ordezkariari eta "Usurbilgo herria ez dago hitzarmen

honetan, baina UEMarekin sinatu genuen hitzarmenean dago. Beraz, Buruntzaldea osoarekin sinatu dugu konpromisoa," azaldu zuen.

Jarraian, Iñaki Mujika eta Mikel Izagirrek hitz batzuk esan zituzten.

Urnietako alkateak, Buruntzaldeko udalen euskararen aldeko lana aipatu eta udalek konpartitzen dituzten lan-lerroen artean, enpresalarra dela eta bereziki herritarrei zerbitzu zuzena ematen dien enpresak direla gogoratu zuen.

Bestalde, Iñaki Mujikak "bai administrazioetatik, bai enpresetatik, euskara gure tresna naturala izan dadin, bai gure erakundeetako lan-hizkuntza izan dadin, bai gure erakundeek herritarrei eskaintzen dizkieten zerbitzuetako hizkuntza ere izan dadin," adierazi zuen.

### Konpromisoak

Gauzak honela, sinatzaileek hartzen duten konpromisoetako bat haien arteko harremanak euskaraz izan daitezen da. Honetaz gain, euskara ahalik eta esparru gehienetan erabiltzen saiatuko dira

Euskadiko Kutxak bere aldetik, udalerrri hauetako bulegoetan euskararen presentzia areagotzen saiatuko da eta hori posible izan dadin bost eremuetan zenbait neurri hartuko ditu, hala nola, bezeroarekin duten harremanean, eskaintzen dituzten zerbitzuetan, langileen eremuan, kanpo komunikazioari dagokionean eta idatziko dokumentazioan.

Hitzarmenean jasotzen diren konpromiso horiek lau urterako dira eta eraginkorrak izan daitezten jarraipen-batzorde bat jarriko da martxan. •

## LOHPko partehartze karpa Zumaburur

**L**asarte-Oriako Herritarren Plataformako Herritarren Partehartze Karpa kokaleku berria izango du aste honetan. Bihar, goizeko 11:00etatik 13:00etara Zumaburu auzoko Andapa kalean egongo da.

Karparen bidez, plataformako kideek, herritarren kezak, arazoak, ekimenak ezagutu eta bildu nahi dituzte, gero udalera behar duen moduan iritsi daitezten.

Duela hamabost egun Zabaletako Antonio Blas plazan egon ziren eta herritarrekin hurrengo hitzordua, Andatza plazan izango dute. •



LOHPko partehartze karpa Zabaleta auzoko plazan egon zen martxoaren 19an.

### AKATSAK ZUZENTZEN

## Elkartasun jaialdia Ostartek antolatatu zuen

Asteleheneko aldizkarian, 4. orrialdean Esmeraldas aldeko elkartasun jaialdiaren berri eman genuen. Bai titularrean, baita sarreran ere, Ostadar agertzen da antolatzaile modura, baina okerreko informazioa eskaini genuen. Jaialdia antolatatu zuen taldea, Ostarte Gazte taldea izan baitzen. •

### POLITIKA

## Larunbateko manifestaziora joateko autobusak Lasarte-Oriatik

Gernikako akordioak sinatzaileek "Euskal Herriarentzat normalizazioa. Legalizazioa orain!" lelopean Bilbon bihar 17:30etatik aurrera egingo den manifestaziorako deialdia egiten dute.

Lasarte-Oriatik Bilboko ekimenera joateko autobusak jarriko dira. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, "autobusa arratsaldeko 15:30ean aterako da Txiki-Jai tabernako geltokitik".

Autobusean joan nahi duenak izena eman beharko du eta horretarako, Xirimiri elkartearen, Artizar tabernan eta Zabaleta auzoko dendan zerrrendak aurkituko dituzte interesatuek. •

### ASTE SANTUKO TXOKOAK

## Txoko Olinpiadetan izena ematea

Kamisetak egin, abestia grabatu, uretako kirolak, herri kirol bitxiak eta hamaika abentura gehiago bizi ahaliko dituzte apirilaren 18 eta 20a bitartean, eta 26 eta 30a artean Txoko Olinpiadetan izena ematen duten gatzetxoek.

Aste Santuko txokoak 2002tik 2008ra bitartean jaiotakoek zuzenduta daude. Goizeko 9:00etan atek ireki eta 13:30ak arte hurrek gozatzeko aukera paregabea izango dute egun horietan.

Apirilaren 14a bitartean apuntatzeko aukera dago, baina ez galdu denbora, kopurua mugatua da eta, lehenengo 40 haurrentzat egongo da lekua bakarrik. Izena emateko Ttakun K.E-tik (Geltoki kalea 4, behe) pasa, 943 371448 telefono zenbakira deitu edo [www.ttakun.com](http://www.ttakun.com) helbidean sartu. Bestela, Amaraun Ludotekan ere izena emateko aukera badago. •



Ikasleek elkarrekin jotzen zuten lehenengo aldia zen kasu batzuetan.

## Ezohiko kontzertu didaktikoa izan zen

**O**hikoa da musika klasikoa jotzen duten taldeak kontzertu didaktikoak egitea, baina asteartean, Donostiako Francisco Escudero Kontserbatorio-riko gitarra eta baxu elektriko ikasleek izan ziren lan hori egin zutenak.

Ikasle talde desberdinek bateriaren laguntza izan zuten eta abesti batzuetan haien irakasle den Jorge Gonzalezek ere baxuan lagundu zien.

Jazz, blues, rock... estiloko hainbat doinu ezagun eskaini

zituzten. Eta hauek aitzaki izanik, besteak beste, inprobisaketa, blues-en estruktura edo egileei buruzko informazioa eskaini zieten bertan bildu ziren ikasle eta irakasleei.

### Kantuko ikasleak

Bestalde, gaur Kontserbatorio bereko kantu ikasleak izango dira Brigitarren komentuan, 19:30etatik aurrera.

Danak Kide elkarte VI. Musika topaketen barruko kontzertu honetan opera izango da nagusi. •

Shandra Perez Lucero Artista

# “Margotzearen bitartez askatzen naiz”

■ Shandra Perez Lucero artista lasarteoritarren erakusketa ikusgai Jalgin apirilaren 5a arte  
 ■ Artista honen azken fasea, femeninoa, aurkituko dugu margoetan, baita bere autoerretatua ere

Barnean duzun hori ateratzeko, zure barneko mundua liberatzeko eta guztiakin konpartitzeko bidea dute margoa artista askok. Hori da Shandra Perez Lucero lasarteoritarren kasua. Aspaldi, txikitik margoaren mundu honetan murgiltzen hasi zen Rafael Domenech irakaslearen eskutik, eta harez geroztik ez du mundu honetatik aldentzerik lortu. Bere bizitzan pasa dituen fase ezberdinak arte lan ugarietan irudikatuta geratu dira, bere bizitzan izan duen eboluzioaren isla argia direla erakutsiz.

ITXASO MORENO

**A**pirilaren 5a arte Shandra Perez Lucero herriko artistaren obrak ikusteko aukera egongo da Jalgin. Bere barneko sentimenduak bere obran islatu ditu, artista hau hurbiletik ezagutu nahi baduzu ez galdu aukera. Gu berarekin bildu gara bere artea hobeto ulertzeko.

**Zer arte tipoa da zurea?**

Momentuan bertan sortzen dena. Nik ez dut bilatzen, bera da ni bilatzen nauena.

**Non aurkitzen duzu inspirazioa margotzen hasteko?**

Nigan. Nire sentimenduetan, nire beharretan. Aipatu bezala nik ez dut koadrorik egiten, koadroa bera da sortu nahi duena eta nik hori irudikatzen dut. Buruan daukan hori islatzen dut nire koadroetan. Nire liberazio eta gainditze oihua dira nire koadroak.

**Jalgiko erakusketak ildo zehatz bat jarraitzen du?**

Nigan oinarrituta dago, nire obra gehiena bezala. Pasatzen edo sentitzen ditudan gauzak izango dira ikusiko dituzuenak. Nire bizitzako momentu ezberdinak.

**Hori ez al da errepikakorra?**

Beti gai beraren inguruan margotu arren, koadro guztiak euren artean oso ezberdinak direla konturatzen naiz, sortzen dudana momentukoa. Gainera koloreekin, espresioekin asko jolasten dut, oso perfektionista naiz.

**Jalgiko erakusketa zure bizitzako ze faseari dagokio?**

Azken faseari, femeninoenari. Erakusketara hurbiltzen direnei aholku bat eman nahi diet. Koadroen parean jar daitezela, burua garbi utzi eta koadroak duen horri guztiari bidea irekita. Koadroak hitz egingo die, nahi duen hori erakutsiko die.

**Zer transmititu nahi duzu zure koadroekin?**

Jendeak nire koadro baten aurrean dagoenean jartzen duen espresioa begiratzea gustatzen zait, nire arteak hunkitu duen ala ez jakiteko. Ni publiko aurrean biluztu egiten naiz, nire barnealdea erakutsiz.

**Zenbat denbora pasa dezakezu koadro batekin?**

Depende. Koadro bat bi ordutan sortu dezaket eta beste bat hilabete batzuen buruan. Margotzen hasi naiteke baina gero denborarekin perfektionatzen noa, koadroari eboluzionatzeko aukera emanez. Gainera eboluzio hori argazkien bitartez ikusten dut.

**Publikoari nahi duzun hori erakustea lortzen duzu?**

Ezagutzen nauen publikoak badaki zein den nire lana, jarraitzen dudana ildoa ezagutzen dute. Gainera kuriosoa badirudi ere, publiko horrek nire lanik ikusten badu, nahiz nire sinadura ez eraman, badaki nire obra dela.

Eta hori lorpen handia da artista batentzako, zure obra ezagutaraztea lortu duzulako.

**Zein teknika erabiltzen duzu?**

Momentua eta koadroaren arabera. Azken honek esaten dit zer nahi duen. Ikatz-ziri, tinta, oleoa, akrilikoa, akuarela... erabiltzen ditut margotzeko, marrazteko edota txiste grafikoak egiteko ere.

**Erretratuak, paisaiak...**

Kopiatzaile izan nintzen nire hastapenetan eta aspergarria iruditzen zitzaidan. Nik nahiago dut etortzen zaidana margotzea, hala ere oso zaila da ezerezetik zerbait sortzea.

Garatuta sentitzeko artista batek imaginazioan duena margotu behar du, eta imajinatzen duen hori kanporatzaile zaila da baina ez ezinezkoa.



**Hobby bezala daukazu?**

Hobby bat baino gehiago da, behar bat da. Margotzearen bitartez liberatu egiten naiz, nire adierazpen modua da.

**Koadroak salgai daude?**

Koadroak salgai daude, eta prezioa koadroaren arabera da. Nik ideia baloratzen dut, koadro guztiak originalak eta bakarrak dira munduan.

Norbaitek interesa balu erosteko Jalgiko barran dagoenari galdetzea baino ez du, edo bestela [shandrapl@hotmail.com](mailto:shandrapl@hotmail.com) emailean nirekin harremanetan jarri daiteke.

**Sortu dituzun koadroetatik zein duzu gustukoena?**

Eskuinean agertzen zaigun koadro hori, eta Jalgin ikusgai dagoena, *Mujer que mira abajo*. Tristezia eta bakardadearen isla da, nik momentu batean sentitu nuen irudikatut nuen koadro horretan.

**Honetaz bizi daiteke?**

Oso zaila da margoaz bizi ahal izateko. Gustatuko litzaidake, bai, baina oso zaila da, hala ere ez da ezinezkoa. Nik momentuz ezin dut eta horregatik margotzeaz gain beste lan bat daukat.

Margoarekin zerikusia duten materialak oso garestiak dira, baina gustukoa eta behar dudanez ez zait inportatu. Nire barnea azaleratzeko margotzen jarraituko dut. •





# III. BTTa apirilaren 10an egingo da

■ Ibilbidean aldaketa batzuk izango dira ■ Irteera-helmuga kiroldegi ondoan egongo da

Lasarte-Orian txirrindari ibiltzeko ohitura dute askok. Errepidean gehienak, gutxi batzuk mendian gustuko duten kirolaz gozaten dute. Horietakoak ditugu Saiatuz Txirrindulari taldeko kideak. Horregatik, haien zaletasuna herrian garatzeko, Lasarte-Oriako BTT travesia antolatu zuten. Aurtengoa, apirilaren 10ean antolatu dena, hirugarren edizioa dugu.

Lehenengo edizioan, 2008. urtean, 186 parte-hartzaile izan ziren Lasarte-Oriako I. BTT travesian; iaz, aldiz, 271 lagunek parte hartu zuten. Horregatik, ekimenak duen harrera ona ikusirik, hirugarren edizioa antolatu dute herriko Saiatuz Txirrindulari Kirol taldeak eta MKL txirrinu dendak.

Proba apirilaren 10ean egingo da eta ohi den bezala, Andatza eta Buruntza mendietan barrena egingo dute lasterka txirrindulariek.

## Ibilbidea

Gainera antolatzaileek azaldu digutenez. Aurtengo BTTak

aldaketa batzuk dakartza.

Lehenengo irteera eta helmuga puntua da. Hirugarren edizio honetan Loidi-Barreneko pilotaleku ondoan egongo da.

Bigarren aldaketa ibilbidea da. Goizeko kiroldegi ondotik 9:00etan atera eta bi ibilbide egiteko aukera dago, bata motza 28km dituen eta bestea, 38 kilometrotakoa.

Ibilbide motza aukeratzeko dutenek, Andatza mendira egingo dute eta bertan mendi pistetatik igoko dira eta hortik Lasartera egingo dute buelta. Antolatzaileek azaldu digutenez, "ibilbidea lasaia goa da eta ez da prestakuntza berezirik behar hau egiteko".



Hipodromoko zubian 271 txirrindulari bildu ziren iazko BTTan. Aurten ere antzeko kopurua espero dute antolatzaileek.

Bestalde, 38 kilometroko luzerako bidea aukeratzeko dutenek, Andatza eta Buruntza igo beharko dituzte.

Bigarren aukera honetan, "ibilbide teknikoagoa da eta

puntu batzuetan txirrindutik jaitsi beharko dira parte hartzaileak," azaldu digute.

Gainera, ibilbide hau aukeratzeko duten parte-hartzaileak prestatuak egon behar direla ere aipatu digute. Izan ere, "lokatza egonez gero, gogorra izango da."

## Indarrak berreskuratu

Ibilbidean zehar bi gune antolatu dituzte jan eta edatekoekin, bata Andatza eta bestea Azkorten.

Proba bukaeran ere, nekea eta botatako izerdiak ahazteko jakiak eta edariak egongo dira parte-hartzaileen eskura.

Honetaz gain, partaide guztiek opariak izango dituzte, probako kamiseta eta sagardo botila bat, eta proba bukatutakoan opari desberdinen zozketa egingo da.

## Izena-ematea

Izen-ematea Internetez bidez egin daiteke apirilaren 9a,

ostiralera arte eta 12 euro ordainduko dira.

"Ehun bat pertsonak eman dute izena dagoeneko Internet bidez, baina gehiago espero ditugu. Izan ere, azken astean animatu ohi dira gehienak" aipatu dute.

Egunean izena eman ahal-ko da, goizeko 8:00etatik 8:30era, baldin eta Interneteko inskripzioarekin ez bada bete. Orduan, 15 euro ordaindu beharko dituzte interesatuek.

Honetaz gain, antolatzaileek jakin arazten dute, parte-hartzea 300 txirrindularira mugatua dela eta, era berean, proban parte hartzeko 16 urte baino gehiago izan behar direla gogoratzen dute.

Informazio gehiagorako, inskripzioaren baldintzak, kuotak eta lasterkariaren programak edo izena-emateko formularioa [www.saiatuz.com](http://www.saiatuz.com) web gunean aurkituko dituzte interesatuek. •



Txirrindulariak Andatza eta Buruntza mendietako pisten barrena ibiliko dira proba honetan. Arg. Saiatuz Txirrindulari Kirol taldea

**ADURIZ DE LASARTE S.A**  
Solomoa baratxuritan  
Odolkia- Solomo ontzuetua Etxeko txorizoa  
Tripakiak- Saltxitxak Basurde burua  
Txistorra Baserri pateia

**BERTAKO FABRIKAZIOA**  
Loidi Barren kalea 3 • Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451  
Lasarte-Oria

**ELEKTRIZITATEA**  
**ARREGUI**

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA

# Markak hausten segitzen dute igerilariak

Haitz Mitxelenak Neguko Euskal Herriko Txapelketan brontzeko domina eskuratu zuen

**B**uruntzaldea Igeriketa taldeko gazteak txapelketaz txapelketa ibili dira azken bi asteetan.

Martxoaren 19 eta 20an, Euskal Herriko Neguko txapelketa eta Espainiako infantil mailakoan egon ziren; lehenengo astean, berriz, udako errendimenduko lehen trofeoa izan zuten eta txikienek kirol zehaztasun liga.

## Euskal Herriko txapelketa

Honela, aipatu bezala, martxoaren 19 eta 20an, Euskal Herriko Junior, Promesa eta absolutuen mailako Neguko txapelketa ospatu zen Getxon.

Bertan lan bikaina egin zuten Igeriketa taldeko gazteek, aipagarriena, Haitz Mixelena izan zela adierazi du Borja Apeztegia entrenatzaileak. Izan ere, Mitxelenak 50 eta 100 tximeleta probetan bere markak hautsi ondoren, 200 tximeletan Espainiako txapelketarako gutxiengo marka egin zuen.

Gainera, junior mailako Euskal Herriko txapeldun orde titulua eta absolutu mai-

lan, brontzeko domina eskuratu zuen igerilariak.

Txapelketa honetan, gainera, Naroa Gokoetxeak 50 metro bular proban bere marka 37 segunduetan jarri eta 4. postua eskuratu zuen.

## Udako lehen txapelketa

Lehenengo larunbatean martxoaren 26an, berriz, udako lehen trofeoa ospatu zen Donostian eta emaitza bikainak lortu zituzten taldeko igerilariak.

Alde batetik Itsaso Tolosak 100 bizkar eta 200 bizkar probetan Estatuko gutxiengo marka eskuratu zituen eta Iñigo Ibarburuk 50 libre proban.

Gainera, sailkapen nagusian, Itsaso hirugarren izan zen eta Iñigo berriz, bigarren.

Gauzak honela, biak egongo dira Valladoliden abuztuan egingo den Estatuko Udako txapelketan.

Honetaz gain, taldekideek zortzi marka personal hautsi zituzten. "Udako zikloa hasi besterik ez dugu egin eta igerilariak horren forma onean daudela ikusteak sekulako poza eta ilusioa ematen



Arg.: Buruntzaldea Igeriketa taldea

Udako lehen trofeoa parte hartu zuten taldeko igerilariak eta lortutako sariak.

digu," adierazi du entrenatzaileak.

## Espainiako txapelketa

Bestalde, martxoaren 18 eta 19an, Iñigo Ibarburu Sabadellen egon zen Espainiako Neguko infantil mailako txapelketan.

Bere estreineko aldia zen eta bi probatan parte hartu zuen herriko gazteak.

100 libre proban 10. amaitu zuen Iñigok. "Ez zuen bere marka onena egin baina Euskadiko txapelketan egindakoa hobetu du. Gutxieneko marka berriro ere egitea zen helburua eta horixe egin zuen," azaldu du Apeztegia entrenatzaileak.

100 tximeleta proban, aldiz, indartsu ibili eta bere marka hobetzea lortu zuen, txapelketako 8. marka eginez.

## Kirol Zehaztasun Liga

Era berean, lehenengo larunbatean, herriko kiroldegian, Buruntzaldea igeriketa taldeko txikienek Kirol Zehaztasuneko 4. jardunaldia izan zuten.

"Haurrak pixkanaka lau estiloak menperatzea lortzen ari direla ikusi genuen" adierazi du Borja Apeztegiak.

Honela, txikienek 25 metro tximeleta eta 6x25 proban lan ona egin zutela jakin arazi du, baita 2002 urteko gaztetxoek ere.

2001 urtekoek, 50 metro tximeleta proba izan zuten eta aipagarria izan zen, nesketan Nahia Jieren lehenengo postua.

Erreleboetan, 6x25 bular proban, Buruntzaldeako bi talde izan ziren lehenengo postuetan.

Honetaz gain, lehen urteko alebinek 100 tximeleta eta 100 estiloak probetan parte hartu zuten.

Eta zaharretan igerilari bakarra egon zen, Mikel Soto. Honek, 50 tximeleta proba indartsu egin zuen eta 400 libreetan, aldiz, mantsuago ibili zen. •

## Kirolerako agenda

### ■ FUTBOLA ■

#### Larunbata 02

10:30ean, Ostadar - Euskalduna (Infantilen Ohorezko maila, txapeldunen fasea) Michelinen.

11:00etan, Euskalduna - Ostadar (Infantil Txikiak, kopa) Ubitarte, Andoainean.

12:30ean, Real Union - Ostadar (Jubenilen Ohorezko Maila, igoera fasea) GAL, Irunen.

15:30ean, Texas Lasartearra - Union Txiki Touring (I. Erregionala, kopa) Michelinen.

15:30ean, Asoleus - Ostadar (I. Erregionala, igoera fasea) Herrera, Donostian.

15:30ean, Oiartzun - Ostadar (Emakumezkoen KDT F-I, txapeldunen fasea) Karla Lekuona, Oiartzunen.

16:15ean, Beti Ona - Ostadar (Emakumezkoen Liga, kopa) Beraun, Renterian.

17:15ean, Ostadar - Dunboa Eguzki (Erregional Gorena) Michelinen.

#### Igandea 03

09:00etan, Santo Tomas Lizeoa - Ostadar (Partehartze infantilak, kopa) Berio, Donostian.

12:00etan, Ostadar - Añorga (Alebinak, kopa) Michelinen.

12:00etan, Sporting de Herrera - Ostadar (Kadeteen Ohorezko maila, igoera fasea) Herrera, Donostian.

### ■ ARETO-FUTBOLA ■

#### Ostirala 01

HERRIKO TXAPELKETA

Finalerako Fasea, kiroldegian

20:00etan, Izarra - Semblante Andaluz

21:00etan, Izkiña - Naiban

#### Larunbata 02

16:00etan, ISU Leihoak - Laskorain (Gipuzkoako Liga, I. maila) Kiroldegian.

18:00etan, Aldaz H.K. - Euskalduna (Nazional B maila) Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA

Ligaxka eta kontsolazioa,

Michelingo kirol gunean

10:00etan, Obelix - Katakras

11:00etan, Indaux - Ilargi

12:00etan, Lekuona Mena - Ayete

13:00etan, Illun - Kalaberri Z

### ■ PALA ■

#### Igandea 03

09:00etan, I. Begiristain eta X. Etxezarrera - J. Iparragirre eta K. Rozas

10:00etan, I. Bardaji eta A.Zubizarreta - M. Ruiz eta I.Arluziaga

10:45ean, I. Lizaso eta J. Alzibar - B. Odriozola eta S. Martin

### ■ SQUASH ■

HERRIKO TXAPELKETA

18:00etatik aurrera

#### Ostirala 01

Fernando Montero - Iker Cañedo

Raul Mateos - Irati Agirre

#### Astelehena 04

Iñaki Garcia - Michel Zugasti

Veronica Gonzalez - Joaquin Peña

#### Asteartea 05

Agustin Erkizia - Oinatz Iparragirre

Alberto Udabe - Patxi Delgado

#### Asteazkena 06

Jon Linazisoro - Emilio Hernandez

Oswal Cañedo - Quinin Calvo

#### Osteguna 07

Xabier Linazisoro - Fernando Montero

Javier Serrano - Raul Mateos

### ■ DUATLOIA ■

#### Larunbata 02

17:00etan, herritar talde batek Ermuaneko II. Duatloian parte hartuko du, Ermuan.

### ■ TXIRRINDULARITZA ■

#### Larunbata 02

10:15ean, Buruntzapiko txirrindularitza eskolako jubentilek XXXVIII Amaiak-Bat Sarian parte hartuko dute, Deban.

16:00etan, Buruntzapiko txirrindularitza eskolako kadeteek Elgoibarko XXII. Sarian parte hartuko dute.

16:30ean, Buruntzapiko txirrindularitza eskolako infantilek Oñatiko sarian parte hartuko dute.

#### Igandea 03

08:30ean, Ostadarreko zikloturista taldeak irteera du Zaldibira.

### ■ ATLETISMOA ■

#### Igandea 03

11:00etan, herriko hainbat korrikalarik Aginagako III. mendi lasterketan parte hartuko dute.

### ■ JUDO ■

#### Larunbata 02

Egun osoa, LOKE taldeko Mario Garrido eta Josu Olmos judoka gazteek 20 urte azpiko Espainiako txapelketako finalean lehiatuko dira, Villaviciosa de Odon, Madrilen.

### ■ K-I ETA KICK BOXING ■

#### Larunbata 02

18:00etatik aurrera, K-I mailako Euskadiko amateur txapelketa eta kick boxing borrokak, Michelingo frontoian.

### ■ GIMNASTIKA ■

#### Larunbata 02

Egun osoa, LOKEko gimnastek eskolarteko txapelketako bigarren jardunaldia dute, Labegaraieta kiroldegia, Bergaran.

### ■ BOLA-JOKOA ■

#### Igandea 03

Egun osoa, LOKEko bola joko taldeak Gipuzkoako kopako lehen jardunaldia du, Seguran.

### ■ ESKOLA KIROLA ■

#### Larunbata 02

09:30etatik 10:30era, Multi kirola egiten duten Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetako LH3 eta LH4 mailako benjaminek futbol topaketa dute, Michelingo kirol gunean.



Egunero

**Erakusketa**

SHANDRA PEREZ LUCEROREN margolanak ikusgai apirilaren 10era arte. Jalgi kafe-antzo- kian, egun osoan zehar.

Ostirala, 1

**Musika**

DONOSTIAKO ESCUDERO KON- TSEBATORIOKO IKASLEEK eman- dia eskainiko dute Danok Kide elkarteak antolatutako VI. Musika Topaketen barruan. Brigitarren komen- tua, 19:30ean.

**Bertsotaria**

ANDONI EGAÑA ETA XABIER AMU- RIZA arituko dira bertsoan afaldu ondoren. Txartelak sal- gai Jalgin, 20 euro. Arrieska- lleta elkarteak, 21:00etan, EUSKARAZ.

**Kontzertua**

RASMIGUEL Y TAFARI, reggae emanaldia eskainiko dute *Naiban tabernaren 3. Urteur- rena* ospatzeko. Naiban tabernan, 23:30ean.

Larunbata, 2

**Kontzertua**

PATRICK ZUHAITZ DJAREN eman- aldia (musika alternatiboa) *Naiban tabernaren 3. Urteur- rena* ospatzeko. Naiban tabernan, 23:00etan.

Igandea, 3

**Kontzertua**

JAVI DJAREN emanaldia (kun- bia, merenge...) *Naiban tabe- rna* ospatzeko. Naiban tabernan, 21:00etan.



Jazza gaur kulturetxeko kafetegian

R.S: FACTOR (JAZZ) taldearen emanaldia Udala eta Xpres- ion! Elkartearen arteko hitzamenaren barruan. Talde hau Musikenen jaio zen, bertako partaideak ikasleak zirenean, hain zuzen ere, 2007an. Bere musika bat-bate- kotasunean dago oinarrituta.

GAUR, OSTIRALA  
KULTURETXEKO KAFETEGIAN  
20:00ETAN, DOAN

Ostirala, 8

**Aurkezpena**

KORRIKAREN 17. EDIZIOKO AUR- KEZPENA egingo da. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan. Bertan hainbat herritarrek eta elkarte hartu- ko dute parte. Kilometroa erosi dutenei ere petoak bana- tuko dizkiete. EUSKARAZ.

Larunbata, 9

**Antzerkia**

BAGINAREN BAKARRIZKETAK antzezlan eskainiko dute Txalo produkzioak taldeko aktoreek *Korrikaren aldeko* egitarauaren barruan. Sarrera doan, Kutxaren babesarekin. Manuel Lekuona kulture- txean, 20:00etan, EUSKARAZ.

**Kontzertua**

ANDRAKAN ETA OREINDIK tal- deek emanaldia eskainiko dute. Jalgi kafe-antzo- kian, 22:00etan.

Asteartea, 12

**Hitzaldia**

Haur eta nerabeen guraso eta hezitzaileentzako hitzaldien zikloan, "JOSTATUZ IKASTE", Fermin Korkostegiren eskutik. Kulturetxean, 18:00etan.

Osteguna, 14

**Zinea**

WHEN YOU'RE STRANGE (jato- rrizko bertsoia, gaztelaniaz subtitulatua) filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera, 4,20 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30ean.



Ostirala, 15

**Bertsotaria**

IRUN ETA LASARTE-ORIAKO bert- so-eskolen arteko BERTSO- DESAFIOA Korrikaren aldeko egitarauaren barruan. Jalgi kafe-antzo- kian, 22:30ean. EUSKARAZ.

Larunbata, 16

**Bakarrizketa**

MIKEL BERMEJO, MAILU ARRUTI herritarrek eta IONE GORROSTA- ZU ETA OLATZ ETXEBERRIA akto- reek bakarrizketak eskainiko dituzte Korrikaren alde. Jalgi kafe-antzo- kian, 22:30ean.

**Oharrak**

**Korrika 17ko arropa salgai**

Korrika 17aren arropa, kami- setak, sudaderak, etab. erosi nahi duten herritarrek badute lekua. Materiala Urruzola mertzerian, Kale Nagusia 41 zenbakian, salgai egongo da euskararen lasterketa erral- doia amaiera arte.

**Galdutako gauzak**

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, urrezko aliantza Jose Luis grabaketa- rekin, lau bizikleta, hiru erlo- ju, urrezko pultsera, eraztun bat, diru zorro bat, neskaren eskumuturreko bat, bi zila- rrezko pultsera, bi betaurreko graduatu bata zorroarekin, poltsa eta telefono mugikor bat, haur zamarra bat, bi larruzko zamarra eta belarri- tako batzuk.

Gauza hauen jabeak dire- la egiaztatzen duten herrita- rrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eska- tzen zaie Udaltzainen Bule- gora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

**Erretiratuen bidaia Beni- dormera**

Biyak Bat elkarteak bazkide guztientzako antolatu dute 15 eguneko bidaia Benidormera. Irteera maiatzaren 15ean izango da eta itzulera 29an. Benidormeko Cristal Park ize- neko hotelean hartuko dute ostatu. Norbaitek interesarik badu edo informazio gehiago nahiko balu, Biyak Bat elkar- teak Kale Nagusian duen egoitzatik pasa behar du.

**Oharrak jartzeko:**

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info

**Liburutegiko ordutegia**  
Astelehenerik ostiralera 10:00 - 13:00  
eta 16:00 - 21:00  
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

**Esazu irratiko programazioa**

**Ostiralero programa!**

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:00etara

**Dagokionari**

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

**Eskutitza**

**"Politikaz Lasarten" blog berria**

Blog berria sortu da Lasarte- Oriari, Politikazlasarten.wordpress.com helbidean. Blog hau Lasarte-Oriako politikaz modu independentean ari- tzeke sortua da, hasiera batean 2011ko Maiatzaren 22an ospatuko diren hautes- kundeetarako prozesuaz, eta gero hortik sorturiko udala

eta herriko politikagintzare- kin harremana duten gaietaz. Bi bide izango dira, alde batetik, "kazetaria" erabil- tzailearekin berriak publika- tuko dira, eta beste izenekin, kolaboratzaileen iritzia. Ez da, beraz, alderdi edo sekto- re bati loturiko bloga izango, kolaboratzaileen iritzia- k seguruenik alderdi ezberdi- nei lotuak egon daitezkeen arren. Blogak sortuko duen edukia euskaraz izango da, beste lekuetan publikaturiko


Lasarte-Oriari buruzko berriak bilduko badira ere, euskaraz izan ala ez. Artiku- luez gain, argazkiak, bideo- ak eta audio grabaketak ere eskuragarri jartzea da asmoa. Hala ere, geroz eta kola- boratzaile gehiago izan, errazagoa izango da denera iristea, horregatik, interesa duen jendea kolaboratzaile bihurtzea deituzko ere bada mezu hau. Kolaboratzaile izan nahi duenak, esteka, bideo, argazkiak bidali,

edo elkarrizketaren bat nahi duenak posta elektronikoki hontara idatzi dezake: poli- tikazlasarten@gmail.com. Azkenik, eta interesaturik balego interesgarri izango zaiolakoan, ez da ezagutza konplexuegirik behar blo- gean gauzak egiteko, baina beharko balitz, kolaboratzaile- entzako ikastaro bat edo egingo litzateke.

**Politikaz Lasarten Ekimena**



# IZARRA BITXITEGIA



[www.izarrabitxitegia.com](http://www.izarrabitxitegia.com)

Geltoki kalea 19 • Tel.: 943 371384  
Juan XXIII.a plaza, z/g • Tel.: 943 364945

IPARJOY<sup>®</sup> A.L.E.

